

## LEHIAKETAK-CONCURSOS / SIDRA-SAGARDOA



## XVI. Sagardo Lehiaketa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak

SAGARDOAREN LURRALDEA - 30/03/2017 - 15:50

Sin comentarios



2017ko ekainaren 3an "XVI. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak" ospatuko da Donostiako Euskal Gastronomía Elkartean.

### Antolaketa

Lehiaketa Batzordea honela osatuko da: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuko bi ordezkari eta Euskal Gastronomía Elkarteko ordezkari bat; eta bere egitekoa izango da "XVI. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak" izeneko lehiaketa kudeatzea.

Sagardo lehiaketako epaimahaia bederatz lagunek osatuko dute, ondoren zehazten den moduan:

- Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuko foru diputatua izango da epaimahaiburua.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuak zazpi kide proposatuko ditu epaimahairako. Proposatutako kideak ENAC erakundeak egiaztatutako

sagardoaren dastaketa paneleko kideen artean aukeratu dira.

- Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuko funtzionario batek, Antolaketa Batzordeko kide denak, egingo ditu idazkari lanak, hitzarekin bana botorik gabe.

### Izen-emateak

Sagardo naturala bakarrik onartuko da. Sagardo naturala egiten duten enpresek Gipuzkoan kokaturik egon behar dute eta Eusko Jaurilaritzako Nekazaritza Industrien Erroldan izena emanda; horrez gain, Botilartzeko Erregistroa eta Osasun Erregistroa eduki behar dituzte.

Errolda eta erregistro agiri horiek 2017ko apirilaren 12ko 14:00ak baino lehen lortu behar dira, orduan bukatzen baita eskariak aurkezteko epea.

Eskaria, behar bezala beteta, helbide honetara bidali behar dira:

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentua  
Landare Alorreko Unitatea  
Gipuzkoa plaza z/g – 20004 Donostia  
Telf: 943112183 – Fax: 943426920

### Laginak jasotzea

Antolatzaileek, sagardotegi bakoitzean, kupeletik zuzenean hartuko dituzte laginak.

Lagin bakoitzeko bi botila laborategi enologiko ofizial batera bidaliko dira, analiza dezaten.

### Sariak

Lehiaketan finalista geratzen diren lehenengo hirurei honako sari eta garaikurrak emango zaizkie:

- Lehenengo saria: 3.000€, txapela eta garaikurra.
- Bigarren saria: 1.500€ eta garaikurra.
- Hirugarren saria: 1.000€ eta garaikurra.

Lehiaketaren finalera iritsi diren gainerako lehiakideei diplomak emango zaizkie.

**Tags:** Cofradía Vasca de Gastronomía, Concurso de sidra, Diputación Foral de Gipuzkoa, Euska Gastronomía

## Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48  
20115 Astigarraga  
t: 00 34 943 550 575  
f: 00 34 943 559 575  
info@sagardoarenlurraldea.com  
www.sagardoarenlurraldea.com



### Buscar / Bilatu



### Categorías

Agenda-Agenda  
Azokak-Ferias  
Ekitaldiak-Eventos  
Errezetak-Recetas  
Esperientziak-Experiencias  
Formazioa-Formación  
Gastronomia-Gastronomía  
Historia-Historia  
Kultura-Cultura  
Lehiaketak-Concursos  
Museos-Museoak  
Prensa-Prensa  
Sagarra-Manzana  
Sagastia-Manzanal  
Sidra-Sagardoa  
Sidrerías-Sagardotegiak  
Sin categoría  
Turismo-Turismo

### Post Recientes



Sagardofest 2017



Merkatuan dira Euskal Sagardoa jatorri deitura duten lehenengo botilak



Hernaniko Altzueta sagardotegiak irabazi du Foru Aldundiaren

*Anterior post*

El territorio de la sidra protagonista en los premios Apfelwein Weltweit 2017 Sagardoaren Lurralde protagonista Apfelwein Weltweit 2017 sarietan

*Siguiente post*

Sidrerías abiertas en SEMANA SANTA 2017 2017ko ASTE SANTUAN irekiak dauden sagardotegiak

## Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar

Gipuzkoako XVI. Sagardo Lehiaketa



Bihar erabakiko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren XVI. Sagardo Lehiaketako irabazlea



“SAGARDOA ETA ITSASOA”: Bailearen arrantzaren abenturak ezagutu!

### Comentarios recientes

Elias Elorza Ugarte en **Sektorea. Gipuzkoako Foru Aldundudiko Fraisoro Ingurumen eta Nekazal Laborategiak estatuko lehendabiziko ENAC ziurtagiria lortu du sagardoaren dastaketarako.**

Arlete en **“Sagardoaren Lurralde ezagutuz”, Urumearen sekretuak ezagutzeko ibilaldia.**

**Sagardoaren Lurralde en Maiatzak 25: Astarbe sagardotegiaren 450. urteurrena.**

**NAIARA en Maiatzak 25: Astarbe sagardotegiaren 450. urteurrena.**

**Sagardoaren Lurralde en “Sagarrondotik Sagardora” 2017ko ikastaro praktikoa Usurbilen**